

Versionarios taldea:

“Itxura txarra hartzen diguten arren, jendea txundituta geratzen da”

Lurpe tabernan entzun ziren Versionarios taldearen lehen akordeak, duela 4 urte inguru. Musika gustuko zuen lagun talde bat bertan elkartu eta musika jotzen hasi zen: gauetan, era akustikoan eta inolako konpromiso barik. Proiektua indarra hartzen joan zen, eta egun, 20 kontzertu inguru eta gero, hasierako ilusioz eta indarrez beteta jarraitzen dute.

- Zein musika mota jotzen duzue?

Pop-rocka gaztelaniaz, 80 eta 90. hamarkadetako abesti ezagunak. *El límite* (La Frontera), *Cruz de navajas* (Mecano), *La chica de ayer* (Nacha Pop), *Las chicas son guerreras* (Coz) eta *A tu lado* (Los Secretos), besteak beste. Aktualagoak ere badi-tugu, MClan edo Amaralen bat, esaterako. Errepertorioa txikitzen joan gara, momentu batean 60 abesti genituelako. Gaur egun 25 bat ditugu, eta noizbehinka al-daketak egiten ditugu. Izan ere, kontzertu gehienak Ermuan egiten ditugu, eta jendeak gauza berriak eskatzen dizkigu.

- Nola egiten duzue aukeraketa?

Berez irteten zaigu. Baten batek abesti bat proposatu,

eta jotzeari ekiten diogu. Batzuetan, nahiz eta tematu, ez dago kanta bat jotzeko modurik eta baztertu egin behar dugu; beste batzuetan, aldiz, gogo handirik gabe hasi, eta berehala hartzen diogu puntua.

- Hasierako musikari guztiek jarraitzen duzue, edo gorabeherak egon dira?

Gorabeherak izan ditugu. Hasieran 3 gitarra akustiko eta teklatura jotzen genuenok bakarrik geunden; gero baxua, bateria, eta neska baten ahotsa sartu genuen. Orain 7 gara, baina 8 izatera heldu gara.

- Gogoan duzue lehen kontzertua?

Bai, 2013ko Gaur Zabalik ekimenenean izan zen. Hortik aurrera hainbat lekutan jo dugu: Lurpe, Torrekoa eta Karikato tabernetan, Valdes-



pina parkean Santixauetan, Galiziako Letren Egunean, Sallabenteko jaietan, Eibarren, Gasteizen, Segovian... Euskal Herrian eta Segovian ezagutzen gaituzte, kar-kar! **- Bai, bitxia da...**

Gure bateria ohiak ezagun bat zuen Segovian, eta honek kontzertu bat antolatu zuen zaldi-eskola bat inauguratzeko. Gonbidatu gintuzten, eta primeran pasatu genuen. Han beste tipo bat ezagutu genuen, eta bere herriko jaietan jotzeko proposamena egin zigun. Bi urtez joan gara jada. Bai bertan eta bai Sallabenten, sumatu dugu hasieran ez zirela gutaz asko fida-

zuten. Itxura txarra hartuko ziguten-edo, baina gero lilurata geratzen dira eta errepikatzeke gonbitea egiten digute.

- Etorkizunari zer eskatzen diozue?

40 Principalesen jotzea, Miamitik bira egitea... kar-kar! Ez, gure asmoa ondo pasatzea da, eta jendeak gurekin ondo pasatzea. Askotan esaten digute nabaritzen dela eszenatokian ondo pasatzen dugula, eta hori kontagiatu egiten da. Baina egia da gehiago mugitu behar garela kontzertuak lotzeko.

Dorleta Vidal

BERRITZE LANAK
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU
ZUK ERABAKI

SPARA
rehabilitación + sostenibilidad

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina - Zeharkalea, 36. 3º - 48260 Ermua - Bizkaia

Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es